

2026-ko ZUHATZA MENDI LASTERKETA ETA MENDI

MARTXAKO ARAUDIA

Eguna eta lekua

Zuhatza Trail 2026 ekainaren 27an egingo da, Deban.
Irteera eta helmuga Debako Plaza Berrian izango dira.

- Mendi martxa: 08:00etan
- Lasterketa: 10:00etan

Inskripzioa eta parte hartzaile kopurua

Lehenengo, Debako herritarrentzat zabalduko da izen-ematea presentzialki plaza berrian (arkupetan):

Apirilak 23 (18:00-20:00)

Apirilak 24 (18:00-20:00)

Apirilak 25 (12:00-14:00)

Ondoren, plazak geratzen badira, "Kronoak" plataformaren bidez zabalduko da.

- Mendi lasterketa: gehienez 150 parte-hartzaile
- Mendi martxa: gehienez 150 parte-hartzaile

Mendi lasterketan parte hartzeko adin nagusikoa izatea derrigorrezkoa da.

Mendi martxan, adin txikikoek gurasoen edo tutoreen baimenarekin parte hartu ahal izango dute (dagokion fitxa betez).

Prezioa

- Lasterketa: 20 € (Zuhatzako bazkideentzat: 17 €)
- Mendi martxa: 10 € (bazkideentzat: 7€)
- Umeak 5€

Prezioan sartzen da:

- ✓ Anoagunea
- ✓ Asistentzia medikoa
- ✓ Parte-hartzaileen poltsa

- ✓ Asegurua
- ✓ Dutzak
- ✓ Kontsigna

Dortsalen banaketa

Tokia: Debako plaza berrian.

Ekainak 26, ostirala. 17:00 etatik 20:00 etara.

Ekainak 27, larunbata. 07:00 etatik 09:00 etara.

Dortsala jasotzeko, derrigorrezkoa da parte-hartzailea bertaratzea, eta ezin izango du beste inork haren ordeztasun jaso. Ez dira onartuko baimen edo ordezkariak idatziak.

Dortsala jasotzeko, nortasun-agiria (NAN), edo izen-ematearen egiaztatzea edo baliokidea aurkeztu beharko da.

Ibilbidea

Ibilbidea honako hau izango da:

Deba – Artzabal – kanaleko bidea – Arbil – Itziarko poligonoa – Santa Katalina – hondartza – Ifar kalea – Plaza Zaharra – Debako Plaza Berria

Distantzia: 14 km

Desnibela: +550m

Zerbitzuak

- Kontsigna: frontoian/plaza berrian
- Dutzak: Aldats Pilotalekuan
- Anoagunea: Itziarko poligonoan

Sailkapena

Denborak Kronoakeri bidaliko zaizkio, eta haiek argitaratuko dituzte emaitzak.

Sariak

Emakumeak:

1. saria: trofeoa + produktuak/bonoak
2. eta 3.: produktuak/bonoak

Gizonak:

1. saria: trofeoa + produktuak/bonoak
2. eta 3.: produktuak/bonoak

Segurtasuna

Antolakuntzak erantzukizun zibileko eta istripu aseguruia izango du.
Gurutze Gorriaren laguntza izango da.

Parte-hartzaileei mediku-azterketa egitea gomendatzen zaie.
Parte-hartzaile bakoitzak bere gain hartzen du jarduera fisikoak dakarren arriskua.

Seinaleztapena

Ibilbidea eta kilometroak behar bezala seinaleztatuta egongo dira, kartel adierazleak.

Anoagunea

Itziariko poligonoan egongo da (8.km-an)

Janaria eta edaria egongo dira.

Denbora muga

Mendi lasterketan, helmugan, korrikalariak 3h-ko denbora-muga izango du.

Ingurumen arauak

Zaborra botatzea debekatuta

Norbait gela, plastikoa edo zaborra lurrera botatzen ikusten bada, lasterketatik kanporatzeko edo deskalifikatzeko arrazoia izango da. Zaborra botatzeko anoaguneak egongo dira.

Baja/izen aldaketak/diru itzulketak

- Bajak ez dira onartuko
- Diru itzulketak ez dira onartuko
- Izen aldaketak astebete lehenagorarte onartuko dira

Derrigorrezko materiala

- Mendiko zapatilak (trail-erako egokiak)
- Kirol arropa egokia
- Edalontzia/ flaska

Antolakuntzak eguraldi baldintzen arabera material gehigarria eskatzeko eskubidea izango du.

Eguraldiaren klausula

Antolakuntzak ibilbidea aldatu edo bertan behera uzteko eskubidea

Istripu kasuetako laguntza

Parte-hartzaileek istripuren bat izan duen edozein pertsonari lagundu beharko diote, eta gertatutako edozein gorabehera kontrol-puntuetan jakinarazi beharko dute. Laguntzarik ez ematea deskalifikazio arrazoia izango da. 9. en puntuan esan bezala, lasterketak Gurutze Gorriaren laguntza izango du.

Erantzukizuna

Antolakuntzak ibilbidean gertatutako istripuak estaliko ditu, baina ez parte-hartzailearen arduragabekeriagatik sortutakoak.

- Beste baten dortsalarekin parte hartzea debekatuta dago
- Antolakuntzak ez du objektu pertsonalen ardurarik
- Kontsigna zerbitzua egongo da

Parte-hartzaileak bere gain hartzen ditu kalte guztiak (berek zein hirugarrenei eragindakoak).

Araudiaren onarpena

Parte hartzeak araudi hau onartzea dakar.

Araudian jasotzen ez den guztia EMF-FVM araudiaren arabera ebatziko da.

Datuen babesa

Izena ematearekin batera, parte-hartzaileak onartzen du:

- Sailkapenak argitaratzea
- Argazkiak erabiltzea

Datuak ez dira beste helburuetarako erabiliko.

Arduraduna: Zuhatza Euskaltzaleon Mugimendua

Erabilera: Lasterketaren kudeaketarako

Datuak: oinarrizko datuak (izena, abizenak, jaiotze-data, etab.)

ARGIBIDEAK / INFORMAZIOA

Telefonia: 613 92 01 73 / 686 77 07 56 (Julen eta Unai).

Helbide Elektronikoa: zuhatzakirola@gmail.com.